# Iragarkiak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

**3651**

IRAGARKIA, Euskadi 2020rako Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailea egiteko lehiaketarako (Espedientea: 15A/10).

1.– Entitate esleitzailea.

a) Organoa: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Zerbitzu zuzendaria.

b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Kontratazio Mahaia (Zerbitzu Zuzendaritza).

c) Espedientearen zenbakia: 15A/10.

2.– Kontratuaren ezaugarriak.

a) Helburua: Euskadi 2020rako Mugikortasun Iraunkorraren Plan Zuzentzailea egitea.

b) Multzotan zatitzea: ez da multzotan zatitu.

c) Burutzeko lekua: enpresa esleipendunaren egoitza.

d) Burutzeko epea: urtebete.

3.– Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko modua: hainbat irizpide.

4.– Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

Zenbatekoa, guztira: ehun eta berrogeita hamar mila (150.000) euro, gehi hogeita zazpi mila (27.000) euro BEZarenak. Guztira, ehun eta hirurogeita hamazazpi mila (177.000) euro.

5.– Behin-behineko bermea: ez dago behin-behineko fidantzarik jarri beharrik.

6.– Agiriak eta argibideak eskuratzea.

a) Entitatea: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

b) Helbidea: Donostia kalea, 1.

c) Herria eta posta-kodea: 01010 Vitoria-Gasteiz.

d) Telefonoa: 945 01 97 90.

e) Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: 2010eko irailaren 14a.

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

**3651**

ANUNCIO para la licitación de la elaboración del Plan Director de Movilidad Sostenible en Euskadi 2020 (Expediente n.º 15A/10).

1.– Entidad adjudicadora.

a) Organismo: Directora de Servicios del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

b) Dependencia que tramita el expediente: Mesa de Contratación (Dirección de Servicios).

c) Número de expediente: 15A/10.

2.– Objeto del contrato.

a) Descripción del objeto: elaboración del Plan Director de Movilidad Sostenible en Euskadi 2020.

b) División por lotes y número: el objeto del contrato no está dividido en lotes.

c) Lugar de ejecución: sede de la empresa adjudicataria.

d) Plazo de ejecución: 1 año.

3.– Tramitación, procedimiento y forma de adjudicación.

a) Tramitación: ordinaria.

b) Procedimiento: abierto.

c) Forma: pluralidad de criterios.

4.– Presupuesto base de licitación.

Importe total: ciento cincuenta mil (150.000) euros, al que corresponden veintisiete mil (27.000) euros de IVA. En total, el presupuesto base asciende a ciento setenta y siete mil (177.000) euros.

5.– Garantía provisional: no se exige garantía provisional.

6.– Obtención de documentación e información.

a) Entidad: Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

b) Domicilio: c/ Donostia-San Sebastián 1.

c) Localidad y código postal: 01010 Vitoria-Gasteiz.

d) Teléfono: 945 01 97 90.

e) Fecha límite de obtención de documentos e información: 14 de septiembre de 2010.

f) Kontratu honi buruzko informazio guztia webgune honetan eskura daiteke: www.contratacion.info edo www.euskadi.net/contratacion.

7.– Kontratistaren betekizun zehatzak.

a) Eskatutako sailkapena: ez dago sailkapen jakinik egiaztatu beharrik.

b) Kaudimenari buruzko eskakizunak eta egiaztatzeko modua:

b.1.– Egiaztatzeko modua:

b.1.1.– Ekonomia- eta finantza-kaudimena: enpresaren ordezkariaren aitorpena.

b.1.2.– Kaudimen teknikoa:

b.1.2.1.– Organo eskudunak egindako edo bisaturiko ziurtagiriak, hartzailea sektore publikokoa izan bada, eta pertsona pribatua bada, pertsona horrek egindako ziurtagiria edo enpresaburuaren aitorpena.

b.1.2.2.– Kontratua gauzatuko duten langileen izenak jasotzen dituen zerrenda eta talde horretan partehartze eta erantzukizun handiena duten pertsonen Curriculum Vitaea, lan-eskarmentua, gai horretan zehazki emandako denbora, zehaztuko duena.

b.2.– Eskakizunak:

b.2.1.– Ekonomia- eta finantza-kaudimena: parte hartzen duten enpresek azken hiru ekitaldietan egindako negozioek guztira gutxienez 300.000 eurokoak izan behar dute.

b.2.2.– Kaudimen teknikoa:

b.2.2.1.– Enpresak egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda (kontratuaren xedearekin zerikusia dutenena), haien zenbatekoa, datak eta onuradunak zein diren (publikoak nahiz pribatuak) adierazten duena. Azken hiru urteetan garraio gaiekin lotutako gutxienez bi azterlan edo lan egin direla egiaztatu beharko da.

b.2.2.2.– Gai horietan kualifikazio-maila handia duen lan-taldea, pertsonen mugikortasunaren eta salgaien garraioaren plangintza-tresnetan behar beste denbora eta baliabide jarriko dituena, eta gutxienez, honako tituludun hauek izango dituena: Zuzenbideko lizentziadun bat, Ekonomia Zientzietako lizentziadun bat, goi mailako titulua duen ingeniari bat eta Soziologiako lizentziadun bat, eta guztiek ere mugikortasunaren inguruan hiru urte baino gehiagoko esperientziarekin. Gainera, lan-taldea osatzen duenetako batek generoaren arloko prestakuntza egiaztatu beharko du. Gainera, laguntza teknikoa emango dien talde bat izan beharko dute, kontratuaren xede diren egitekoetarako. Lan-taldearen zuzendari izateko izendatzen den pertsonak, arestian aipatutako goi mailako titulazioetakoren bat izan beharko du, eta gainera, arlo horretan gutxienez 15 urteko lan-esperientzia egiaztatu beharko du.

f) Toda la información relativa al presente contrato podrá obtenerse en la siguiente página web: www.contratacion.info o www.euskadi.net/contratacion.

7.– Requisitos específicos del contratista.

a) Clasificación exigida: no se exige clasificación.

b) Requisitos de solvencia y medios de acreditación:

b.1.– Medios de acreditación:

b.1.1.– Solvencia económica y financiera: declaración de la persona representante de la empresa.

b.1.2.– Solvencia técnica:

b.1.2.1.– Certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando la destinataria sea una entidad del sector público o, cuando lo sea un sujeto privado, un certificado expedido por éste o, a falta de este certificado, una declaración de la empresa.

b.1.2.2.– Relación nominal de todas las personas integrantes del equipo de trabajo y Curriculum Vitae de sus miembros, al menos de las personas con mayor participación y responsabilidad en dicho equipo, acreditando su experiencia temática y en tiempo.

b.2.– Requisitos:

b.2.1.– Solvencia económica y financiera: las empresas licitadoras deben acreditar como mínimo una cifra de negocios de 300.000 euros en el cómputo global de los tres últimos ejercicios.

b.2.2- Solvencia técnica:

b.2.2.1.– Relación de los principales servicios o trabajos realizados relacionados con el objeto de la asistencia, que incluyan importe, fechas y beneficiarios públicos y privados de los mismos. Como mínimo, habrán debido realizarse dos estudios o trabajos (facturados o contratados) relacionados con temas de transporte en los últimos tres años.

b.2.2.2.– Equipo humano de alta cualificación en las distintas materias afectadas, con dedicación en tiempo y medios en las labores de instrumentos de planificación en materia de movilidad de personas y de transporte de mercancías, el cual deberá incluir como mínimo: una persona Licenciada en Derecho, una persona con titulación en Económicas o en Empresariales, una persona con titulación en Ingeniería Superior y una persona licenciada en Sociología; todas ellas con más de tres años de experiencia acreditada en planificación y en la realización de estudios sobre movilidad. Además, deberá acreditarse formación en materia de género de, al menos, una de las personas del equipo. Asimismo, deberán contar con un equipo de apoyo técnico en las labores relacionadas con el objeto del contrato. Para la dirección del equipo, la persona asignada deberá acreditar titulación superior en alguna de las materias antes citadas, y una experiencia a avalarse con una línea profesional de trabajo en el campo citado de al menos 15 años.

Kontratuaren beharren arabera, lan-taldean sartzeko prest egongo den adituren bat izan beharko du lan-taldeak, batez ere, lan-taldeko pertsonetako baten generoen arteko berdintasunaren arloko prestakuntza egiaztatzeari dagokionean, baldin eta aurrez egiaztatu ez bada.

8.– Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea.

a) Agiriak aurkezteko azken eguna: 2010eko irailaren 15a, 12:00ak baino lehen.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: berariazko klausula administratiboen pleguan adierazten direnak.

c) Aurkezteko lekua:

1) Erakundea: Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

2) Helbidea: eskaintza ekonomikoak eskuan eraman beharko dira Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Erregistro Nagusira, Vitoria-Gasteizko Donostia kaleko 1era (Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia), goian aipatutako epean. Postaz ere bidali ahal izango dira, eta eskaintza postan zein egunetan jarri den, egun berean (eta betiere eskaintzak aurkezteko muga-ordua baino lehen) kontratazio organoari telex, telekopia, edo telegrama bidez jakinarazi eta egiaztatu beharko zaio. Bi baldintza horiek betetzen ez baldin badira edo bidali izanaren berri ematen duen jakinarazpena proposamenak jasotzeko jarritako epea amaitu ostean jasotzen bada, eskaintza hori ez da onartuko. Nolanahi ere, eskaintza postaz bidali, eta hamar egun naturaleko epean jasotzen ez bada, inolaz ere ez da onartuko.

3) Herria eta posta kodea: 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

d) Lizitatzaileak zenbat denbora eutsi behar dion eskaintzari: 2 hilabete, proposamenak irekitzen direnetik aurrera kontatuta.

e) Aldaerak onartzea: ez da aldaera edo alternatibarik onartuko.

f) Prozedura mugatua bada, eskaintzak aurkezteko gonbita egin nahi zaien enpresen kopurua edo gutxienezko edo gehienezko kopurua: ez dago horrelakorik.

9.– Esleitzeko irizpideak.

Eskaintzak baloratzeko irizpideak, garrantzi gehien dutenak lehenengo jarriz eta ematen zaien ponderazioa kontuan izanik. Puntuazioa, guztira: 100 puntu.

a) Formulak aplikatuz automatikoki baloratzekoak diren irizpideak:

a.1.– Eskaintza ekonomikoa. Ponderazioa: 40 puntu.

Este equipo deberá contar con el apoyo de personal técnico especializado del que pudiera demandarse su incorporación en virtud de las necesidades del contrato. En particular, para certificar la formación en materia de igualdad de género de, al menos, una de las personas del equipo, en caso de no haberse certificado previamente dicha formación.

8.– Presentación de las ofertas o de las solicitudes de participación.

a) Fecha límite de presentación: 15 de septiembre de 2010, antes de las 12:00 h.

b) Documentación a presentar: la que se especifica en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

c) Lugar de presentación:

1) Entidad: Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

2) Domicilio: serán entregados en mano en el Registro del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, c/ Donostia-San Sebastián, 1, Lakua 1, 8.º planta (Edificio Sede Central del Gobierno Vasco), o enviadas por correo dentro del plazo de admisión señalado, debiendo justificar la fecha de imposición del envío en la oficina de correos y anunciar al órgano de contratación la remisión de la oferta mediante telex, telefax o telegrama en el mismo día y antes de la hora límite de presentación de ofertas. Sin la concurrencia de ambos requisitos o si la comunicación de la remisión es recibida con posterioridad al transcurso del plazo de recepción de proposiciones establecido, la oferta no será admitida. Transcurridos, no obstante, diez días naturales a la indicada fecha sin haberse recibido la proposición, ésta no será admitida en ningún caso.

3) Localidad y código postal: 01010 Vitoria-Gasteiz, Álava, España.

d) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: 2 meses, a contar a partir de la apertura de las proposiciones.

e) Admisión de variantes: no se admite la presentación de variantes o alternativas.

f) En su caso, número previsto (o número máximo y mínimo) de empresas a las que pretende invitar a presentar ofertas (procedimiento restringido): no es el caso.

9.– Criterios de adjudicación.

Criterios de valoración de las ofertas relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye. Puntuación total: 100 puntos.

a) Criterios evaluables de forma automática mediante la aplicación de fórmulas:

a.1.– Oferta económica. Ponderación: 40 puntos.

Formula: eskaintzarik merkeenari puntuaziorik altuena emango zaio, eta gainerakoei, alderantzizko proportzioan.

a.2.– Lanak burutzeko epea. Ponderazioa: 10 puntu.

Formula: eperik laburrenari puntuaziorik altuena emango zaio, eta gainerakoei, alderantzizko proportzioan.

Multzo horren ponderazioa, guztira: 50 puntu.

b) Balio-iritzien bidez aplikatzekoak diren irizpideak:

b.1.– Prozesuaren euskarri teknikoa. Ponderazioa: 40 puntu. Kontuan hartuko da parte hartzen duen enpresa bakoitzak lanak garatzeko proposatzen duen ikuspegia, metodologiari dagokionean, eta lan-prozesua, eta puntuaziorik altuena Eusko Jaurlaritzako Garraio Zuzendaritzaren helburuetara hobekien egokitzen denari emango zaio.

b.2.– Proiektuarekiko hobekuntza objektiboak: 10 puntu. Agirian eskatutakoarekiko hobekuntzak baloratu egingo dira.

Multzo horren ponderazioa, guztira: 50 puntu.

10.– C gutunazala irekitzeko ekitaldi publikoa.

a) Entitatea: Kontratazio Mahaia (Zerbitzu Zuzendaritza).

b) Herria: 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

c) Data: 2010eko irailaren 24a.

d) Ordua: 10:00ak.

e) Lekua: Lakua IIko 1. aretoa, Donostia kalea 1 (Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia).

11.– Eskaintza ekonomikoen irekiera:

a) Entitatea: Kontratazio Mahaia (Zerbitzu Zuzendaritza).

b) Herria: 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).

c) Data: 2010eko urriaren 6a.

d) Ordua: 10:00.

e) Lekua: Lakua IIko 1. aretoa, Donostia kalea 1 (Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia).

12.– Bestelako argibideak.

13.– Iragarpen-gastuak: enpresa esleipendunaren kontura.

14.– Iragarkia Europako Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali zeneko eguna: ez dago horrelakorik.

15.– Deialdiari buruzko informazioa eta pleguak eskuratzeko atari informatikoa edo webgunea: www.contratacion.info edo www.euskadi.net/contratacion.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko uztailaren 8a.

Zerbitzu zuzendaria,
PALOMA USATORRE MINGO.

Fórmula: a la oferta económica más baja se le asignará la máxima puntuación y al resto, la inversamente proporcional a aquélla.

a.2.– Plazo de ejecución. Ponderación: 10 puntos.

Fórmula: al menor plazo se le asignará la máxima puntuación y, al resto, la inversamente proporcional.

Ponderación total de este grupo: 50 puntos.

b) Criterios cuya aplicación requiere realizar un juicio de valor:

b.1.– Soporte técnico del proceso. Ponderación: 40 puntos. Se valorará el enfoque que cada empresa licitadora proponga para el desarrollo de los trabajos a realizar en cuanto metodología y proceso de trabajo propuesto, dando la máxima puntuación a los criterios que mejor se acomoden a los objetivos de la Dirección de Transportes del Gobierno Vasco.

b.2.– Mejoras objetivas sobre el proyecto: 10 puntos. Se valorarán aquellas mejoras que impliquen un valor añadido al contenido del pliego.

Ponderación total de este grupo: 50 puntos.

10.– Apertura pública de los sobre C.

a) Entidad: Mesa de Contratación (Dirección de Servicios).

b) Localidad: 01010 Vitoria-Gasteiz, Álava, España.

c) Fecha: 24 de septiembre de 2010.

d) Hora: 10:00 horas.

e) Lugar: Sala n.º 1 del Edificio Sede del Gobierno Vasco (Lakua II). C/ Donostia-San Sebastián, 1.

11.– Apertura de las ofertas económicas:

a) Entidad: Mesa de Contratación (Dirección de Servicios).

b) Localidad: 01010 Vitoria-Gasteiz, Álava, España.

c) Fecha: 6 de octubre de 2010.

d) Hora: 10:00 h.

e) Lugar: Sala n.º 1 de Lakua II en c/ Donostia-San Sebastián, 1 (Edificio Sede Central del Gobierno Vasco).

12.– Otras informaciones.

13.– Gastos de anuncios: por cuenta de la empresa adjudicataria.

14.– Fecha de envío del anuncio al «Diario Oficial de la Unión Europea» (en su caso): no es el caso.

15.– En su caso, portal informático o página web donde figuren las informaciones relativas a la convocatoria o donde puedan obtenerse los pliegos: www.contratacion.info o www.euskadi.net/contratacion.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2010.

La Directora de Servicios,
PALOMA USATORRE MINGO.